

Euzkela

EUZKADI GUSTIKO IZPARRAK
URRUTIZKINEZ TA BIDAIZ
IDAZKITYAK KIRIKINO'RI

Emakumea eta Aberria

Emakumearen eskubideak **Dantzatik itzultzekoan**

Urte abetan zaratarik asko ateratzen izan da, eta gertatzen da, or laterri aurreratu-tuetan, emakumearen eskubideak dirala-ta; ba oyetako emakume gogozkoak, ikastunak, gizasemeak aibat eskubide nai dute errietako arazoetan. Eta itil-lian, ibillian, laterri batzuetan zerbait iritxi ere bai.

Aberriak berak bere eskubideak gal-duak dituen gure Euzkadi onan, emaku-me euzkotarrak geure eskubideak alde-tza bafio zerbait lenagokoa zaiguna ba degu gure alegiñak egiteko? bafio egia, neure aberri zoritzardun au, azke, eta here buru ikusiko ba'neu ere, ez dakit or, Ego ta Ipar Amerika, Engalan, Doitxe ta enparauko emakume jakintsu oien us-teak nere gogoa berengatu, gure aberrian ayek berenean egiten dutena egin naiko nuben. Ez get ueste.

Ikusten ditudanean emakume jakintsu oiek, jakidietan ikastun egiten arteak igaro dituzten oiek, ederti eta elertian gorenago agertzen diran oiek, beren itzali eta idaztietan "emakumearen eskubi-deak" esaten dikiotzen diran direnekoak fortutzeo ain gogotsu alegintzen, zer es-katzen duten ero batzuk iruditzen zaiz-ki; zer nai duten ez dakiten gifiñati bat-zuk ueste ditut nik.

Zenbat eta geyago alegintzen diran geureak ueste duten eskubide oiek alde-tzen, ez ditugun eskubideak irixten, or-duan ta geyago gaitzen dituzte ludiaren Bereroseak, gizon ta emakumien Jabeak bere Irakatsi zerutarrakin emakumea goi-tuaz, gizartearen eman zizkigun eskubideak; Bera'k geure geuretzat eman zizkigun es-kubideak; sendiaren bidez ludi-jabe izan al izateko eskubideak.

Beste jakintza guztietan alegintzen dir-tan arren, egi onen jakitun izaten, ez det aste emakume oiek alegin aundirik egi-ten dutenik.

Oraindik orain Ego-Amerikar andera abetako batek, emakumientzat autarkia eskatzen egin zuan itzaldi baten, gutar-rikoak errietara arazoetan lezakegun ona apaituaz, beste gauza batzuen artean esa-ten zuan, emakumeak egingo litzekela beste lege batzuen, umetxuen habes izan-go litzakezan legeak.

Ateraldi onek parre arazi zidan, ¿Umet-xuak zainpetzeo emakumeak "diputa-du" eta "ministro" izan bearra ote degu? Zenbat eta ardura oyetan lezkatuagoak gauden, orduan eta arduragetuagoak izan-go dira umetxo gaxoak, eta umetxoakin sendia, eta sendiak inberria.

Emakume jakitun abek; gizasemerik ospetsuenekin jakidietan bat diran abek, ez dakite, beste jakintza guztiak bafio le-nago eta beste jakintza guztien gain jak-in bear dutena: Ludian zoritzarren osaga-i Jainkoaren Legea degula, eta Lege Deun au gordetzeko, gizasemeak nola ema-kumeak bakoitzak gure bearkunak, Bera-k agindu digun erara bete bear ditugula.

ARNEDILLO
Las mejores aguas para los ar-tificios.

Idazki-Ereduak
Jerusalen-osterean semiak amari

KAIRO.—EGIPTO
Amatxo laztana: Gaur, Jesusen Lagun-diko elekan mesia emon dot; eleka ederra, barri barrija, eta nire ondoren ikusi dot Griego Melkita abade bat, mesia emoten izelako mesia!
Gure kasulla ordez, bapia eukan jantzi-ta; gure eura begira "Dominus vobiscum" esaten dogun lez, arek errira begira es-

Baita be ikusi dot "el salto del mame-luco" esaten deuten; bertatik agiri da Kairo uri andia dan bestian; izugarriko urija da, lau laua eta bere mezikitako espadain zorrotzak apain apain egiten da-be.

Urira jatzí garianian zabaldu gara ka-fietan ziar zerbait erosteko asmoz, bafio iznok aitu emengo txindi edo diruak zen-bat balio dabean? Bilbotar batzuk sartu dira ulia ebatera eta bixar kentzera, eta kendu deutez aibat piastra; kafia ar-tzera sartu gara kafe etxe baten, eta ba-rregarri ibilli gara, franco'rik artu naiez, librarik euki ez, piastarak ezin aitu, pe-setak aintzakotzat artu bez igeldi mutil! eutak barrez, geu be bai, azkenian otse-ñak ugazabana aibat juan etorri egin-da, artu deuskuez gogo txarrez bafio ez-pada be geunkazan frankuak, eta alde egin genduan.

Uri onetan aña asto ez dot ifiun ikusi, bafio izelako astuak! ondo moztuak, gar-bijak, jarlekú apañakak, ara edo bestera gira bat egiteko berarizkuak, asto jabiak aibat txindi ateraten ei dabe eutakak.

Beste gauza batek mira egin deust. Ikusi dodaz emakume aberatsak arpegia estalduta, zalburi ederrean ibillaldia egiten, aurretik 40 neurkin gitxi gora be-ra joazan mutil gastu bi, bidia edegiten; gaste onek joazan ortosik, praka zuri eta txamarra zurijegaz, abadiak eruatzen da-ben sobrepellisa antzekua, eta eskuan ba-kotzak zume antzeko makillatu me bat; makilla auxe aidian dabela, eta deadarka ta karradaren juaten dira 40 neurkin zal-burdian aurretik.

Kairo'ri azken eguna egin bafio lenago, joan gara Piramide ospatsuak ikustera; zalburi ederrean eldu gara euren ofi-tara. Iru piramide dagoz zutunik, beste azko zerbait ar zago dagoz, birrinduta. Nagusijeneri Keobs deituten deute. Lau alde dauko; alde bakotzak beian dauko 235 neurkin (metro) eta gira gusujan 940 neurkin; gorantz dauko 138 neurkin. Be alidian zabal zabala da, eta gorantz estutuaz doia mallarik malla. Malla bako-tzak neurkin bat dauko, eta bera igote-ko, goiko mallatik beduino bik eskutik oratuta jaso biar ixaten dabe, gatxa ta neketsua dalako igotia. Ez nintzan asar-tu beduinoen eskuetan jarten.

Edestijan irakurri dot 100.000 gizon fan-in ibilli zizala, eta iru illabeterik iru illabetera barriztetan ebazala gizon mor-do onek, eta ogetamar urte edo geijago irauu, ebala langintza neketsu onek; eta ez da mira egiteko, ba piramide onek ja-sorik dagoz ariatzen, ondartzan eta urri-fian be ez da ikusten mendirik. ¿Nundik ekarri ebezan arri izugarri onek? ¿Ze bidetatik? ¿zelan? ¿zelako, tramankul-ne-kaz jaso ebezan? duda бага, egun asko, urte asko, eta gizon mordo andiak bir-ko zirian, ekarteko, landuteko eta jaso-teko.

Agur amatxo, onenbestegaz amaitu dot Egiptoko ibilkundia; ez dakit orain ze bide artuko dodan, bafio ortik emendik, andik edo gixien ueste dan tokitik ida-tziko deutzut.

Gorantzjak nire aizkide gusitajai.

Xabier-tar Pantzeska deuna euskalzalea

Txiki-txikitatik neukan Xabier'tar Pan-tzeska Euzko Deun Andiairea entzuta. Banekixen napartarra zala eta gizatu ez-keru jakin, nintuzan bere arriarizko egipenak, eta, benetan bere jatorrixe.

Nere agurtza eta maitetasuna Xabier Deunarentzat erreme azi eta aunditu zan, irakurri nebanian Kotxin'etik 1544 garren urteko Urta'illaren 15'an berak "Err-oman bizi diran lagueri" artezturiko idaztixa. Begira, zer diñuan bere zati ba-tian, Komorin'go, kistaretaz itz egiten: "... eta euek ez eusten ulertzen neri eta nik bez euerri, euren itzkeria mababar-tara eta NEURIA BIZKAITARRA za-lako, batu nebazan euren arteko jakin-tzuenak eta billatu nebazan geure eta eu-ren itzkeria auituen ebezan notifik..."
¡Au da euzkotar oso-oso baten esaku-nie! ETA NEURIA (itzkeria) BIZKAI-

Ala, aurrian gauza bat esan eta atzian beste bat eiten ete dogu?
Or Urkiola-ganlian zelako "preskurie", mutilak!

TXINUETO

Mendaro
NASKALDIYA.—Igaro dan igandian illa onen i'an Soraluze'ko Euzko-Batzoki-ko mendigoizaliak, emen izan genduzen AITZ BELTZ aldeko kobara etortia, gelditurik euek oso ariñta, bera ikus-tian, Soraluzetarrak ez aza guzaz ba geuk ere egingo degu berdin zeukaz.

IRAKASLE AUTUA.—Oso maspiltza aundian arkitzen da Aitzpilgoeta-alderdi-ko ikastola etxerako irakasle aututia, ta eztakigu zertan bukatu biar duan, G. J. naiduana izango da (1).

ESKERRAK.—Eskerrak eman biarrian arkitzen gera emengo Endore Jaunari, da baita ere Elgoibar'ko Udalari, euek, pañola maixutatz naiago deute, ala ez?—aginduta konpondu dituelako aspaldi on-KIRIKINO.

BALNEARIO DE SOBRON
Hoteles: Del Establecimiento y Blanco
LAS MEJORES AGUAS PARA EL
Aparato digestivo, vías urinarias, gota, diabetes, etcétera. etcétera, confir-mados por numerosas y sorprendentes curas. GRAN CONFORT y excelente cocina. Agua fría y caliente en las habitaciones. POR SU SITUACION ex-celente y clima de altura (520 metros sobre el nivel del mar), es recomenda-dísimo como lugar de descanso y eficaz reconstituyente del sistema nervioso. A veinte minutos de Miranda de Ebro, con servicios de autos/proprios a todos los trenes, que partirán del Hotel Trocóniz, de Miranda. Temporada oficial:
Del 15 de junio al 30 de septiembre
El Hotel Blanco continuará abierto hasta el 30 de octubre. Informes, al ge-rente del Balneario. SOBRON (Alava).

MINEROS Y CONTRATISTAS
ACEROS para barrenos de mano y de aire comprimido, para acerar, para cincelos, para herramientas, etc.
CABLES de acero para grúas, montacargas, planos inclinados, tranvías aéreos, etc.
HERRAMIENTAS como azadas, azadones, picos, palas, mazas, rasps, rastrillos, etc.
TUBERIA de bridas locas y mangueras de goma para aire comprimido.
Poleas helicoidales, fraguas portátiles, cabrestantes, ventiladores, yunque, carretillas, etcétera, etcétera.
LLODIO EGUSQUIZA Y C.a - Bilbao
Villarías, números 6 y 8. Teléfono número 1945.

Banco Urquijo Vascongado
BILBAO
Capital. 20.000.000 de pesetas
Realiza toda clase de operaciones bancarias abonando los siguientes tipos de interés:
CUENTAS CORRIENTES
A LA VISTA 2,50 por 100
A OCHO DIAS VISTA 3,— por 100
IMPOSICIONES A PLAZO
BONOS A TRES MESES 3,50 por 100
" A SEIS MESES 4,— por 100
" A DOCE MESES 4,50 por 100
CAJA DE AHORROS
IMPOSICIONES EN LIBRETA 4,— por 100

UNDERWOOD
EL CAMPEÓN
MUNDIAL DURANTE 17 AÑOS CONSECUTIVOS
Admirable por su sencillez, rapidez, pulcritud y solidez
C.M. GUILLERMO TRUNIGER SA
Apartado 298. Barcelona.
50.000 referencias en España
Sucursal en Bilbao: LEDESMA, 30

BANOS DE SAN JUAN
AZCOITIA - LOYOLA. — Aguas sulfurosas - cálcicas
Inmejorables para combatir el reuma y las enfermedades de la piel y nerviosas.
BICICLETAS
PARA TURISMO Y CARRERA, MARCAS DE PRIMERA, DESDE 19 PESETAS AL MES
Sociedad Hispano Americana
Plaza Nueva, número 3, bajo. BILBAO

J. DE LLOBET
Rambla de las Flores, número 4, 1.
BARCELONA

Caja de Ahorros Vizcaina
Oficina central: PALACIO DE LA EXCELENTISIMA DIPUTACION
LIBRETAS ORDINARIAS 3,75 por 100
IMPOSICIONES A 6 MESES ... 4,— por 100
" 1 AÑO 4,25 por 100
" 2 AÑOS 4,50 por 100
CTAS. CTES. A LA VISTA 2,75 por 100
CONSIGNACIONES 2,— por 100
AHORRO INFANTIL 4,50 por 100

Sucursales:
Amorebieta, Baracaldo, Bermeo, Elorrio, Durango, Ermua, Galdácano, Guernica, Mundaca, Munguía, Ochandiano, Ondárroa, Orduña, Orozco, Ortuella, San Julián de Musques, Sopuerta, Valmaseda y Zalla.

Gargan a - Nariz - Oídos
Médico exagregado de los Hospitales de París. Consulta de 3 a 5. Económica de 12 a 2.